

Galdetegia zabaldu du taldeak herritarren iritziak jaso eta jarduerak egokitzeko 20

Zumalakarregi etorbidea, 38
LAUDIO
94 467 78 67

herriz herri

Urduña

Herri Ikastetxeko jantoki proiektua udaberrian abian egotea espero dute



Hainbat mobilizazio egin dute urte hasieratik hona jantoki proiektuaren alde. Urduñako Udala

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urduñako Udalak eta Guraso Elkartek akordioa lortu dute Eusko Jaurlaritzarekin Herri Ikastetxean tokiko produktuak baliatuko dituen jantokia abian jartzeko. Horri esker, udaberrian sukalde ekologikoa zabalik egotea aurreikusi dute ikasleak elikatzeko.

Modu horretan amaiera emango diote duela zenbait urte abian jarritako prozesuari. 2009an ekin zioten ikastetxean tokiko produktuekin funtzionatuko zuen jantoki zerbitzua diseinatzeari. Proiektua planteatu zuten, Nagusien Etxeko sukalde ikastetxeko jantokia ere erabili ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak, baina, blo-

Urte hasieratik darama Guraso Elkartek mobilizazioak antolatzen, Eusko Jaurlaritzak proiektua blokeatu zuela salatzen

keatu egin zuen egitasmoa, ezarritako araudiaren aurkakoa zela argudiatuta.

Orduan ekin zion Guraso Elkartek mobilizazioak antolatzeari. Urte hasieratik hona hainbat ekimen egin dute jantoki proiektua aldarrikatzeko: kalejira jendetsua egin zuten martxoan hirian. Ekainean, aldiz, elkarretaratzea egin zuten Osasun Publikoaren Laudioko egoitzaren aurrean.

Bilera astelehenean

Berez, urriaren 7an beste mobilizazio bat egin behar zuten Urduñako Guraso Elkarteko ki-deek, baina erdietsitako akordioa dela medio, bertan behera utzi dute. Horren ordez, urriaren 23an bilera informatiboa deitu dute Alondegian, 17:30ean.

%6 igo da Urduñako populazioa azken bi hamarkadetan

Testua **Ainhoa Basarrate Astobiza**

% 6 handitu da Urduñako populazioa azken 20 urteetan. Hori adierazten dute plazaratutako azken datuek: duela bi hamar-

kada baino 257 pertsona gehiago dago gaur egun hirian bizitzen. Mende berriaren hasierarekin eman zen igoerarik nabarmena. 2011. urtean erregistratu zen biztanleria kopuru handiena: 4.259 bizilagun.

Azken urteetako beherakada
Orokorrean igoera handia egon den arren, azken urteetan behera egin du Urduñako populazioak. Gaur egun 4.134 pertsona daude hirian bizitzen, 2011n baino 125 gutxiago.

Okondo

Umeentzako ikuskizun batekin ospatuko dute Liburutegien Eguna

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Liburutegien Nazioarteko Eguna izango da datorren asteartearen -urriak 24-. Hori dela eta, ekintza berezia egingo du Okondoko Udalak herriko udal-liburutegian. Umeentzako ikuskizuna izango da, "Ipuin kutxa" izenekoa. Ipuin kontalari batek eskainiko du saioa, 19:30ean.

Autodefentsa ikastaroa

Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa ere egongo da Okondon, azaroaren 18an. Bi zatitan banatuko da saioa: 10:00etatik 14:00etara izango da lehena eta 15:00etatik 19:00etara bigarrena.

Ikastaroan parte hartzeko izena aurretik eman behar da cayala.miren@ayto.araba.eus helbidean edo 686587889 telefonoaren bidez.

Abere eta trikiti doinuak batu ditu Udazken Azokak



Jende ugari bertaratu zen azokara. Aitor Aspuru

Urriko lehen asteburuan ospatu zen urteroko Udazken Azoka. Edizio berezia izan da aurtengoa, Arabako Trikitilari Txapelketa

egin baita. Untxi eta oilo erakusketa eta tokiko produktuen salmenta ere egon dira, aurreko edizioetako ildoari jarraiki.

Athletic Klubeko Ricok eta Lekuek hitzaldia eskaini dute



Gazte ugari bertaratu ziren solasaldira. Kaïttin Allende

Athletic Klubeko Mikel Rico eta Inigo Lekue jokalaria egon ziren iragan astean Okondogoi-nan. Kirola eta nerabeak izan di-

tuzte hizpide. Euren esperientziaren inguruan mintzatu dira eta publikoaren galderak erantzun dituzte gero.

Amurrio

Ellexondo pasealekua berritzeko diru-laguntza eskatu dute



Pasealekuko zorua berritu nahi dute, besteak beste. Aiaraldea.eus

Testua

Txabi Alvarado Bañares

22.310 euroko diru-laguntza eskatu dio Amurrioko Udalak Eusko Jaurlaritzari, Ellexondo pa-

sealekuan obrak egiteko. Hona-ko berrikuntza hauek egin nahi ditu tokiko erakundeak: partereak eta zuhaitz-txorkoak kentzea, zorua birmoldatzea eta hiri-altzariak berritzea.

Guztira 39.826 euroko aurrekontua erabiliko dute hori egiteko. "Oztopo arkitektoniko eta bisualak kentzea" izango da obraren xedea, Josune Irabien alkaterearen hitzetan.

Lau pertsona kontratatu nahi ditu udalak sei hilabeterako

Testua

Aitor Aspuru Saez

Diru-laguntza batzuk eskatu dizkio Amurrioko Udalak Arabako Foru Aldundiari, herrian hiru enplegu programa garatzeko. Tokiko erakundearen helburua da programa horiek aurrera ateratzeko lau pertsona kontratatzea, sei hilabeteko lanaldirako. 100.000 euroko aurrekon-

tua erabiliko lukete horretarako, eta aldundiak % 100 finantzatu-ko luke.

Hiru programa

Lehen programaren xedea izango da udalerriko adinekoei buruzko diagnostikoa gauzatzeta. Ikerketa hori egiteko tituludun pertsona bat kontratatu nahi du udalak. Bigarren programaren asmoa, aldiz, udal eraiki-

netako ondarearen inbentarioa egitea izango da. Langabezia dagoen arkitekto edo ingeniari tekniko bat kontratatuko dute horretarako.

Gainera, bi pertsona kontratatuko dituzte hirugarren programarako. Refor industriaguneko txakolindegia zaharraren espazioa eta bere ingurua moldatu eta egokitzea izango da bi langile horien egitekoa.

Udalaren 37 eraikin ikertuko dituzte amiantoaren duten jakiteko

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Bere jabegoko 37 eraikin ikuskatuko ditu Amurrioko Udalak, amiantorik duten jakiteko. Enpresa baten bidez egingo du tokiko erakundeak ikerketa, 10.073,25 euroko aurrekontua baliatuta.

Iaz onartu zen Udal Osoko Bilkuran amiantoaren inbentarioa egitea eskatzen zuen mozioa. Eskaera betetzeko egingo dute az-

terketa, udalak jakinarazi duenez. "Ebaluatuko diren eraikinen artean daude eraikuntza-urtea edo eraikuntza-ezaugarriak direla eta amiantoaren eduki dezaketena", adierazi dute udaletik, "azterketa horretatik kanpogertuko dira, hortaz, eraiki berriak".

Amiantoaren duten eraikinak identifikatu ostean, espazio horiei begirako moldaketak proposatuko dituzte, kasuan kasu behar diren segurtasun neurriak has daitezkeen.

Laster egongo da abian Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua

Testua

Txabi Alvarado Bañares

"Hilabete batzuk baino ez dira falta Amurrioko Udaletxean Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua (BAZ) ezartzeko". Hala adierazi dute tokiko erakundeko arduradunek.

Hainbat obra egingo dute udaletxeko sarrera moldatzeko, zerbitzu hori eskaintzeko espazioa sortzeki begira. Zerbitzu horrek aukera emango die herritarrei tramite eta eskaera guztiak eraikinaren sarreran egiteko, udaletxeko bulego batetik bestera ibili ordez.

Ondorengo guneak izango lituzke espazio berriak: arre-

ta pertsonalizatuko lau txoko, banakako kontsultarako gune bat eta itxarongela bat. Haurren txoko bat sortzea ere aurreikusi dute. Udalak jakinarazi du herriko lau enpresa ari direla espazioa diseinatzen, elkarlanean.

Hiru langile

Hiru langile egongo dira zerbitzu hori eskaintzen, eta lau garren bat gehituko da "behar izanez gero". Liburu bat sortu dute baita: "Amurrioko Udaleko Administrazio Izapideen Eskuliburu". Bezeroenganako arreta zerbitzuari estaldura ematea izango da dokumentu horren xedea.



2018
EGUTEGIAK
ETA AGENDAK
EGITEKO GARAIA DA !!!
DISEINUA ETA EKOIZPENAK
GURE ESKU UTZI!!

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA
DISEINUA///

Telleria 2, LAUDIO

94 672 65 43

pro@grafiksarea.com

www.grafiksarea.com

herriz herri

Aiara

Padurako kirol pista konpontzeko diru-laguntza eskatuko du udalak



Hesiak kendu, banku gehiago jarri eta zorua konponduko dute, besteak beste. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Padurako kirol pista konpontzeko egitasmoa aurkeztu du Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiko Obra Txikien deial-

dian. Guztira 35.000 euroko aurrekontua izango dute lanek.

Proiektuaren asmoa da hesiak kentzea, banku gehiago jartzea eta zorua garbitzea zein lantzea, baita zelaiko markak margotzea ere.

Ume eta gurasoen topaleku
Izan ere, kirol-azpiegitura hori asko erabiltzen dute Luiaondoko adinez txikikoek eta gurasoek. Horregatik, obren helburua da batzuen jokoak zein bes-teen zaintza lanak erraztea.

Abeltzaintzak sortutako 25,57 plastiko tona jaso ditu Kuadrillak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Kuadrillak kanpaina arrakastatsua gauzatu du abeltzainen artean. Izan ere, 25,57 tona hondakin jaso ditu 63 abeltzaintza-ustiapenetan. Plastikoa erabiltzen dira animalien

bazka gordetzeko. 2015ean abiatu zuten egitasmoa eta irailean bukatutzat eman zuten 3. kanpaina.

Balorazio positiboa
Helburua plastikoak kontrolpeko hondakin bilakatzea da, behar den moduan birziklatzea.

Dagoeneko 63 abeltzaintza-ustiapen parte hartzen ari dira iniziatiban. Horretarako trebakuntza eskaini die Kuadrillak, jakin dezaten nola bildu plastikoa eta gainerako gaiak.

Tokiko erakundea pozik agertu da emaitzekin, aurreikuspenak gainditu baitituzte.

Tokiko ekoizleentzako trebakuntza saioak eskainiko dituzte

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Kuadrillak eta Aiarako Landa Eremuko Garapen Agentziak -Zabaiak- antolatuko dituzte trebakuntza saioak tokiko ekoizleentzat; azaroaren 2an, 7an, 9an, 14an eta 16an 15:30etik 19:30ak arte Aiarako

udaletxean. Hazi Fundazioak hartuko du bere gain lana.

Azaroaren 2an landuko dute nola hobetu mundua norberaren negozioa ardatz hartuta. Azaroaren 7an jorratuko dituzte bezeroak fidelizatzeko ereduak, eta 9ko saioaren izenburua "Gaur ezagutuko dugu..." izango da. Hilaren 14an, berriz,

tokiko produktuak dastatuko dituzte; eta 16an komertzializazio estrategietan zentratuko dira. Azkenik, azaroaren 22an, Ordiziako azoka bisitatuko dute. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko 945 399 013 telefono zenbakira deitu behar da, edo info@zabaia.eus posta elektronikora idatzi.

Laudio

20 enplegu eta formazio postu sortu nahi ditu udalak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Diru-laguntza eskatu dio Laudioko Udalak Arabako Foru Aldundiari formazio eta enplegu plan bana sortzeko. Plan horien bidez 20 herritarrentzako trebakuntza eta enplegu postuak sortu nahi ditu tokiko erakundeak. Alde batetik, bost pertsona kontratatzea aurreikusi du udalak, sei hilabeterako. Behargin horien helburua izango da Lamuza iparraldeko mendi-hegala berreskuratzea. Ondorengo eginbehar hauek izango dituzte beharginek: zabor-kopurua murriztea, sueba-

kiak mantentzea eta zuhaitz nagusien garapenerako oinarriak hautatzea.

15 lagun "lan integrazioan"

Bigarren planaren helburua izango da 45 urtetik gorako pertsonen "lan integrazioa" sustatzea, hainbat motatako praktiken bidez. 15 pertsonen parte hartu ahal izango dute plan horretan. Izena emateko baldintzetako bat da langabezian urtebete egon izana, eta beste hainbat faktore ere baloratuko dira. Udalak adierazi du azaroan enplegu-batzar bat egingo dutela programen gaineko xehetasunak helarazteko.

Autokarabanen aparkalekua arautzeko ordenantza prestatzen ari dira

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak aparkaleku berria sortu zuen Ellakur- in udan, igerilekuetara joaten diren autoek eragiten dituzten arazoak ekiditeko. Lanak guztiz bukatu ez badira ere, ordenantza prestatzen ari da tokiko erakundea. Izan ere, 91 aparkaleku daude bertan, eta horietako 14 autokarabanek erabil ditzaten egin dituzte.

Ezarri nahi dituzten arauen artean, nabarmentzekoa da

kanpaldi librea saihestu nahi dutela. Gehienez 72 orduko baimena emango dute egonaldietarako, eta sanrokeak izanez gero, 96 ordukoa izango da muga. Aparkatzea doakoa izango bada ere, ura eta elektrizitatea baliatzeko ordaindu egin beharko da. Halaber, debekatua egongo da aparkalekuan ibilgailuak garbitzea. Arauak betetzen ez dituztenek 300 euroko isuna jaso dezakete, eta kanpaldi librea egingo balute, 450 eurokoa. Kautela-neurrien artean dago autokarabana ibilgetzea.

Zergak izozteko asmoa dauka Udal Gobernu Taldeak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko EH Bilduk iragarri du gainerako talde politikoei proposatuko diela ordenantza fiskalak mantentzea, baita hiru berri sortzea ere: etorkizu-

nean eraikiko den padel pista- ren erabilera zehaztekoa, autokarabanen aparkalekukoa eta auto elektrikoena.

Koalizioaren asmoa da ibilgailu elektriko % 95eko hobariak eskaintzea trakziomekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

herriz herri

Arrankudiaga-Zollo

Oxinburu erabilera sozial eta kulturalerako espazio bihurtzeko plana, abian



Behark arkitekto taldeak aurkeztutako aurreproiektuaren irudi bat. Behark

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Behark arkitekto taldeari esleitu dio Arrankudiaga-Zolloko Udalak Oxinburu birgaizteko egikaritze-proiektua idazteko kontratua. Eraikin hori guztiz berritzea da asmoa, herriko jarduera sozial eta kulturalerako baliatzeko. Hainbat espazio eta ekintza barnebilduko ditu etxeak: nagusientzako

espazioa, sukaldea, ariketa fisikoa egiteko txokoa, ikasgelak, batzar gelak eta ekitaldi jendetsuak egiteko erabilera anitzeko aretoa.

Behark taldeak aurkeztu du dagoeneko esleipena gauzatzeko beharrezko dokumentazio guztia, eta laster ekingo dio oinarrizko proiektua eta egikaritze plana diseinatzeari, udalak jakinarazi duenez. Gauzak hala, tokiko erakundeak aurrei-

kusi du obrak datorren urtearen hasieran hastea.

Aurkezpen publikoa

Aurreproiektua herritarrei plazaratzeko aurkezpen publikoa egingo dute datorren igandean, urriaren 22an. 11:30ean izango da zita, eskolan. Galde-tegi txiki bat emango diete bertaraten diren auzokideei, egitasmoaren inguruan duten iritzia plazaratu dezaten.

Hispanitatearen egunari planto egiteko, auzolana Urgoson

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldeko hainbat txokotan egin zioten planto Hispanitatearen Egunari urriaren 12an. Arrankudiaga-Zolloko zenbait herritar goizean goizetik egon ziren Urgoson, bertako kirikiño-hesiak auzolanean konpontzen.

Urtero egiten dituzte mota horretako ekimenak, Hispanitatearen Egunean zein Konstituzioaren.



Goiz osoa igaro zuten kirikiño-hesiak konpontzen. Txomin Egiluz

Orozko

Aldizkako analisiak egin beharko dituzte mendi komunaletan dabiltzan behiek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Orozkoko Udalak hainbat neurri hartuko ditu udalerriko behien artean *tricomoniosis* izeneko gaixotasuna hedatzea ekiditeko. Mendi komunaletan gaixotasunak zaindu eta kontrolatzeko osasun-plana onartu zuen tokiko erakundeak iragan aste-ko Udal Osoko Bilkuran. Plan horrek hainbat pauso zehazten ditu, mendien erabiltzaile guztiek bete beharrekoak. Behien inbentarioa aurkeztu eta berrogeialdia ezartzeko plan eta espa-

zioak izan beharko dituzte abeltzainek, animaliengan jazotzen diren abortuak jakinaraztearekin batera.

Gaixotasun gehiago

Sexu bidez transmititzen den gaixotasuna da *tricomoniosis*. Arazoak sortzen ditu erditzean, kumeak galtzeko aukerak handituz.

Hala ere, beste hainbat eritasun prebenitzeko ere balio-ko du planak: *paratuberculosis*, *neosporosis*, *rinotraqueitis* edota beherako birala, besteak beste.

ETXEBIZITZA SUSTAPENA UGARTEN



3 gelako etxebizitzak **135.000** eurotik aurrera kooperatiba-erregimenean. **Informatu zaitez!**



www.etxaurre.com
94 672 85 50
Zumalakarregi 38,
Laudio

etxaurre
higiezin agentzia

herriz herri

Aiaraldea

Goi Nerbioi Bizirik salatu du URA ez dela gai izan topatzeko isurketaren jatorria



8.000 arrain baino gehiago agertu ziren hilik Nerbioi ibaian. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Goi Nerbioi Bizirik kolekti-boak oharra zabaldu du kritikatzeko URAk hiru aste baino gehiago izan dituela azaltzeko milaka arrain hil zituen isurketaren jatorria eta ez dela gai izan. Berez, agentziak ez du zehaztu nork eragin zuen eta zergertatu zen. Ondorioz, ez da zigorrik egongo.

Kolektiboak nabarmendu du URAREN ezintasuna, kasu onean, eta konplizitatea okerrean, isurketa kutsatzailearen egileak aurkitzeko. Kasua are larriagotzat jo dute, izan ere, Eusko Jaurlaritzako agentziak eta zenbait erakundek gertakariaren berri izan zuten herritarrek baino askoz lehenago. Zentzu horre-

tan, taldeak eskatu die erakunde-azpiegiturak-Markixana eta Basaurbeko araztegiak- eta bitartekoak sortzea isurketak eta kutsadura ekiditeko: "Lotsagarria da XXI. mendean Aiaraldeko milaka herritarrek euren hondakinak ibaian isurtzea".

Goi Nerbioi Bizirik URA agentziaren datuak gogoratu ditu azpimarratzeko ibaiaren egoera ez dela bat ere ona: "Neurketen hiru puntuen arabera (Luiaondo, Saratxo eta Arakaldo) bitan baldintza fisiko-kimikoak ez dira egokiak, amonio eta fosfatoen mugak gainditzen dira eta animalien biziraupena bermatzeko baldintzak ez dira jazotzen. Hori gutxi balitz, Saratxon eta Luiaondon merkurioa eta metakloratoa topatu dira eta selenioaren mugak gainditu dira".



NOEMI LLORENTE
INGURUGIRO TEKNIKARIA

Beste bost urte

Denborak aurrera darrai, baina epeek ez: "5 urte barru, azkenik, araztegia izango dugu urak tratatzeko". Buklean sartu izan bagina bezala, hondakinak isurtzen jarraitzen dugu Nerbioian egunero, eta hori egiteari uzteko muga ez da murrizten.

5 urte horiek luzatzen dira denboran eta, hala ere, 5 urte asko pilatzen ditugu itxaropena galdu gabe, uste baitugu baietz, 2022an gure isurketak araztuko ditugula. Alegia, gure etengabeko gaitasun faltaren gainetik, Nerbioiak jarraituko duela borrokatzen bizirik irauteko. Ingurumenak erresistentzia gaitasun handia dauka kanpoko presioen aurrean eta gurean dugu horren adibidea; bizitzaren borrokaren eredu, planetak duela urte ugari borrokatzen duen bataila, hain zuzen.

Apustu egin dugu ekoizpen eta kontsumo eredu suntsikorraren alde, gehiegizko esplotazioan, privatizazioan eta etengabeko hazkundearen oinarrituta, eta horrek krisialdian jarri du milioika lagun eta ekosistemen biziraupena. Planetak eutsi egiten die gure erasoei, baina, noiz arte?

Espero dugu 5 urte gehiago behar ez izatea jabetzeko gaur aukera daukagula errealitatea eraldatzeko, Nerbioiak egiten duen bezala sistema jasanezinaren presioen aurrean.

Arabako Foru Aldundiak ordezkariak ireki nahi du Aiarako Kuadrillan



Arabako Foru Aldundiaren erdigunea izan zen Kasinoa atzo. Aiaraldea.eus

Arabako Foru Aldundiduko Gobernu Kontseilua elkartu zen atzo Laudioko Kasinoan. Tokiko erakundeko ordezkariekin batu zen Ahdun Nagu-

sia eta jakinarazi zien Aiarako Kuadrillan egoitza ireki nahi dutela, Laudion, alegia, jendeak Gasteizera joateko beharrik ez izateko izapideak betetzeko.

Amurrioko Epaitegian izapideak euskaraz egiteko aukera dago

Testua
Aitor Aspuru Saez

2016ko udan ezkondu zen bikote bat euskaraz Amurrioko Epaitegian lehen aldiz, eta auzia osorik euskaraz egiteko parada dago jadanik bertan. Izan ere, Justizia Administrazioari Hizkuntza Normalizazio lantaldeak bultzatu du Auzia Euskaraz ekimena, nahi duenak euskaraz bete ditzan izapideak.

Egitasmo horren barruan 540 euskara emaila dago EAEn; hau da, euskaraz lan egiteko prest dauden abokatu eta prokuradoreak, epaitegiako langileak, epaile eta magistratuak, Justizia Administrazioaren letraduak, fiskalak eta auzitegi-medikuak. Horieta 11 Amurrioko dade, eta bat epailea da, gainera. Erregistro Zibileko inskripzioak ere euskaraz egin daitezke, adibidez.

Artziniega

Ireki dute udaletxe zaharrean kokatutako Gazte Txokoa

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Amaitu dituzte Artziniegako udaletxe zaharrean Gazte Txokoa eraikitze obrak eta ireki dute dagoeneko gunea. Eraikinaren hiru solairuak berri dira, eta beheko solairuan jarri dute nerabeentzako gunea. 238.400 euro baliatuko ditu tokiko erakun-

deak horretarako, Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin.

EH Bilduren kritikak

Artziniegako EH Bilduk, bere aldetik, kritikatu du EAJk Gazte Txokoa ireki duela irisgarritasuna errazteko neurriak hartu gabe. Izan ere, igogailua ez dago indarrean eta inguruan oztopo arki-

tekonikoak daude. Koalizioak azpimarratu du irisgarritasuna bermatzeko lanak eskatu zituela eta EAJren udal-gobernuak bere kabuz ireki duela gunea, eskaera horri erantzun gabe.

Talde politikoak ziurtatu du kaltetuen haserrea handia izan dela eta udalak itxura txarra eman duela.



Ireki dute dagoeneko Gazte Txokoa. Aintzane Ruiz Iturribarria

iritzia

Pentsatu eta ekin

Think globally, act locally. Esaldi horrek jendeak planeta osoaren osasuna kontuan hartuta, eta hau hobetzeko asmoz, bere komunitate eta hirietan jardutera animatzen du. Argi dago esaldi horrek bere osotasunean adierazi nahi duena aurrera eramatea ezinezkoa dela. Hala ere, beharrezkoa eta posiblea dena, norberak edozein arlori bideratuta bada ere, zerbaitegatik arduratzea eta zer edo zer horregatik jardutea da. Nerbioi ibaiaren egoera salatzea eta hobetzen saiatzea esaldi horretan barneratu daiteke, nire ustez behintzat. Ibaiaren egoera, osasuna, flora, fauna, araztegiak, isurketen kudeaketa, salaketak, erantzukizunak, uraren kalitatea eta abarren ardu-

ra zeini dagozkion. Borroka horretan, herritarrok erantzunkizuna eskatu behar diegu erakundeei eta enpresei, haien guztien errua delako gure errekaen egoeraz ezagutzen duguna. Horren adibidea da gaur egun oraindik ere Laudion eta Amurrioren araztegiak ez edukitzea, eta orain dela hilabete bat Saratxoko industrialdean gertatutako isurketa hiltzailea. Mundu guztiaren ustetan ibaiaren egoera oso txarra da. Hortaz, kutsadura atmosferikoagatik, TTIPagatik, birziklapenagatik, mugikortasunagatik, frackingagatik, edo ibaiarengatik ere, Think globally and act locally. Baina garaiz egin ezazue!



URKO IZQUIERDO EREÑO
Goi Nerbioi Bizirik plataformako kidea




ERNESTO MARTÍNEZ DE CABREDO
URA agentziako zuzendari nagusia

Goi-Nerbioiko erasanik handiena

Laudio eta Amurrio EAEko herri-aglomerazio handienak dira kolektore-sarerik eta hondakin-urak tratatzeko eskualde-maillako araztegiak gabe. Ondorioz, hainbat isurketa puntu dira, zoru urbanoan egiten diren jarduera desberdinetan jatorria dutenak. Saneamenduaren kudeaketa eskas horrek isla zuzena du ibaiaren egoera ekologiko txar iraunkorrean. Horiek bildu eta eskualdeko saneamendu sistema batera bideratzea udal administrazioei dagokie. Zentzu horretan, alde batetik, Ingurumen Ministerioari premiatzen ari gara Aiaraldean egiteke diren saneamendu lanen proiektuak onartu eta eraiki ditzan —1.994 eskumena Eusko Jaurlaritzari luzatu zitzaioneko akordioan hartutako konpromisoa betetzeko; eta, bestetik, baita Goi-Nerbioiko Udal eta Kontzejuei ere; hondakin-urak azpiegitura berrietara konektatzeko egin beharreko lanak egin ditzaten, zein isurketak kontrolatzeko eta gutxitzeko neurriak har ditzaten. Gaur gaurkoz, udal administrazioek emandako aurrera pausuak gorabehera, ez dira oraindik saneamendu-sarera egiten diren isurketen kontrolerako ordenantzarik ezarri, eta ez da saneamendu-tasarik kobratzen — saneamendu-sarearen mantentze eta hobetze etengabea bideratu beharko litzatekeen tasa hori—. Orobat, funtsezkoa

da udal eta kontzejuek ahalmen tekniko ona duen partzuergo batean sartzea: hartara, bi herri-aglomerazioetan saneamendu-zerbitzu on bat eskaintzeko; besteak beste, aurrerantzean, saneamenduak ibaian erasanik sor ez dezan. Amurrioren arrainak hiltzea eragin zuen azken gertakarian, jakinarazpena isurketa izan eta ordu batzuk beranduago eman zelakoan gaude; eta, ondorioz, ezinezkoa izan zitzaigun zein konposatuk sortu zuen hilketa, eta nor izan zen erantzulea. Saneamendu eskasagatik ibaiaren egoera makala aintzat hartuta, URAk arrain hilak agertu ziren tokitik ibaian gora diren jardueren ikuskaritza indartu du; baita isurketa berrien arriskua saihesteko prebentzio-neurriak hartzea eskatu ere. Dena dela, prebentzio-neurriak eraginkorrena halakorik berriro gerta ez dakigun: isurketak ondo bideratzea eskualde mailan zorrotz kudeatutako saneamendu-sistema batera. Besteak beste, zoru urbanoan ibaira isurtzen diren baimendutako isurketak murrizteko; kolektoreri doazen isurketak zorrotz kudeatzeko; saneamendu-tasekin bildutakoa dirua erabilia izateko saneamendua planifikatzeko, ondo mantentzeko edota azpiegituren amortizazioa aurreikusteko; eta, aurki, hondakin-urak ondo kudeatutako araztegi berri batera bideratzeko.



Jabi Isasi



GALDERA

Egoera onean dago Nerbioi ibaia?



Julio
Jubilatua

Arrain hilak agertzea kutsaduraren ondorioa da, argi eta garbi. Enpresaren batek eragin du isurketa. Herritarrok ezin dugu ezer egin, udaletxeari eta erakundeei dagokie hori.



Maria
Dendaria

Ez du ondo ikusten. Oso gaizki usaintzen du. Apurapurka konpontzen ari dira, baina duela zenbait urte askoz hobeto zegoen, arrantza egin zitezkeen bertan. Ez dugu ibaia ondo zaintzen.



Aitor
Ingeniarria

Normalean garbi sumatzen dut, baina ur gutxi dagoenean apur bat zikin dago eta normala da arrainek oxigeno gutxi izatea. Errekaren ertzak ere zikin daude batzuetan.



Kontxi
Etxeko langilea

Oso txarto dago, oso zikin. Orain konpontzen ari dira, baina herri honek gehiago merezi du. Ardura enpresena dela uste dut, baina ez dakit ziur. Herritarrok ezer gutxi egin dezakegu.

erreportajea

Ekimen berria du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak esku artean: 1.000 ahobizi eta 5.000 belarriprest “armairutik ateratzea”. Euskal hiztunen eta hizkuntza ulertzen dutenen arteko zubiak eraikitzea da egitasmoaren xedea. Astebeteko lau txanda egingo dituzte horretarako, herriz herri.

6.000 aiaraldearren aho eta belarriak aktibatu nahi dituzte euskararen alde, hilabete batez



Urduñako Foru Plazan egin zuten ekimena aurkezteko prentsaurrekoa, iragan astean. **Bego Guillen**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Konpromisoak hartzetik konpromisoak gauzatzera. Hori da Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak eskualdean eragin nahi duen olatua. Ez zen makala izan iazko udazkenean gauzatu zuten erronka: milaka aiaraldear bultzatu zituzten euskararen aldeko konpromisoak hartzera; eta abenduaren 3an Amurrión eginiko “errotan” irudikatu zituzten urrats horiek gero.

Oraingoan, baina, konpromiso horiek errealitate bihurtzea dute xede, paperean idatzi-

rik haizeak eraman ez ditzan. “Oso ekimen jendetsua eta arrakastatsua izan zen iazkoa”, azaldu du Aitziber Alava Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko ki-deak, “bakarka edo taldeka egin genuen hausnarketa euskararekiko konpromiso bakarra -edo gehiago- hartzeko eta publikoki adierazteko”. Euskaldunen epe-luzerako aktibazioa dute hurrengo urrats: “Ahobizi eta belarriprestak bilduko ditugu horretarako”.

Baina, zer dira ahobizi eta belarriprestak? “Ahobiziak lirateke euskaraz aritzeko gai direnak, eta Belarriprestak entzuteko prest daudenak”, azaldu du

Matxalen Garcia-Escudero ekimenaren bozeramaileak.

Honakoa da “herri.desafioa”: Aiaraldean 1.000 Ahobizi eta 5.000 Belarriprest “armairutik ateratzea”. “Nola? Ahobiziek astebetez euskaraz aritzeko konpromisoa hartuko dute. Belarriprestak, aldiz, belarria ipini beharko dute denbora tarte horretan; euskaraz aritzeko prest egon ez arren, euskaraz entzuteko prest daudela adierazita”.

Horretarako baliabideak eskainiko ditu Euskalgintza Kontseiluak. Batetik, txapak banatuko dituzte; erronkan parte hartzen dauden herritarrek elkarren artean identifikatu eta,

5.000 belarriprest eta 1.000 ahobizi bildu nahi dituzte, hilabete batez “armairutik” irten daitezen

modu horretan, euskarazko elkarrizketak errazteko. Eta, bes-tetik, gomendio sorta prestatuko dute, sortu daitezkeen egonei nola aurre egin erakusteko. “Jolas erraldoi” izaera eman nahi diote ekimenari, “inor deseroso sentiarazi gabe”.

Gutxienez zazpi egunez hartu beharko dute herritarrek euskaraz hitz egin edota entzuteko konpromisoa. “Astea pasatutakoan bakoitzaren esku geratuko da dinamikarekin jarraitu edo ez, edota zer nolako intentsitatearekin jauzia ematen jarraitu”, erantsi dute sustatzaileek. Herriz herri, “zortzikotea” deitu dioten talde moto-

erreportajea

rea osatu dute horretarako. “30 egunetan garatuko da dinamika”, argitu du Garcia-Escudero, “astebeteko txandakegingo dira horretarako, herrika”.

Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldoko auzokideak izango dira lehenak, azaroaren 3tik 10era bitartean izango baitute txanda. Audio, Okondo eta Orozkok hartuko dute lekukoa jarraian,

Gutxienez zazpi egunez hartu beharko dute herritarrek euskaraz hitz egin edota entzuteko konpromisoa

azaroaren 10etik 17ra. Azaroaren 17etik 24ra bitartean Amurrio, Aiara eta Artziniega batu-ko zaizkio. Azken bi herri horiek Urduñari pasatuko diote lekukoa azaroaren 24an.

Alabaina, handiagoa izango da herri handien apustua: Audiok hirutxanda egingoditu

segidan, eskualdeko herri populatuena delako; eta, Amurriok bi. “Hilabete oso batez egongo da mugimenduan eskualdea, Ahobizi eta Belarriprestei esker”, ziurtatu du Garcia-Escudero. Abenduaren 1etik 3ra, ordea, “denok parte hartzeko abagunea” egongo da, bi egun horietan “eskualde osoko ahobizi eta belarriprestak batera arituko baitira”.

Abenduaren 3an amaituko da ekimena. Egun horretan Urduñara joateko deia luzatu du Kontseiluak. “Bertan ospatuko dugu Euskararen Nazioarteko Eguna”, iragarri du Alavak. Foroko kideak adierazi duenez, ez dago zehaztuta oraindik egun horretako egitaraua, baina bai helburua: “eguna aldarrikapenez betetzea da xedea. Euskarra eguneroko hizkuntza izatea nahi dugu lanean, ikastetxeetan, lagun artean, familian, aisialdian...”.

Izen-ematea irekita

Txandetan parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea. Bi modu egongo dira horretarako. Lehen, internet bidez formulario bat bete-tzea da. Bigarrena, berriz, inskripzio orria baliatzea. Batean



Aitziber Alava

Euskalgintza Kontseiluko kidea

“Jolas erraldoi izaera eman nahi diogu erronkari, inor deseroso sentiarazi gabe”

“Beste herrietako ekimenak izan ditugu iturri, eta gure eskualdera moldatu ditugu”

zein bestean, hainbat datu eman beharko dituzte parte hartzaileek: izen-abizenak, herria eta jaiotza urtea, besteak beste. “Jaiotza urtea ematea garrantzitsua izango da, parte hartzeko 14 urte izan behar direlako gutxienez”, erantsi dute.

Apuntatzeko denbora ezberdina izango da tokian toki: Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldon urriaren 20ra arte izango dute aukera. Orozkon, Okondon zein Laudion hilaren 27ra arte luzatuko da izen-ematea;

Abenduaren 3an kanpainari amaiera emateko ekimen bateratua egingo dute Urduñan, jai giroan

eta Amurrian, Aiaran eta Artziniegan azaroaren 3ra arte. Urduñarrek, berriz, azaroak 10 bitarte izango dute inskribatzeko parada.



Matxalen Garcia-Escudero

Euskalgintza Kontseiluko kidea

“Euskaldunen epe luzerako aktibazioa da ekimenaren xedea”

“Hilabete oso batez egongo da mugimenduan eskualdea, Ahobizi eta Belarriprestei esker”



Ahobizi eta belarriprestak “armairutik ateratzea” da kanpainaren helburua. **Bego Guillen**



erreportajea

Ikastetxeak martxan

Iazko “konpromisoen erro-tan” protagonismo berezia izan zuten bailarako ikastetxeek, eta aurtengo ere ez da gutxiagorako izango euren funtzioa. “Iazko ekimenak oso harrera ona izan zuen hezkuntza zentroetan”, nabarmendu du Alavak, “oso erakargarria eta pedagogikoa zela komentatu ziguten, helburuei ondo eusten ziela eta errealtatara guztiz egokitua zegoela”.

Gauzak hala, unitate didaktiko oso bat prestatu dute kontseiluko kideek, belarriprest eta ahobizien filosofia ikasleengan sustatzeko. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan arituko dira, adin bakoitzari moldatutako lanabesekin. Funtsezko osagaiak izango dira musika eta dantza,

Donostiako Egia auzoan egin zen mota honetako lehenbiziko ekimena. Herri ugarik hartu dute lekukoa: Agurainek, Zuiak, Arrigorriagak, Lasarte-Oriak... ekimen nazionala egingo da 2018an

Pirritx, Porrotx eta Marimotsek sortutako abestia eta koreografia baliatuko baitituzte.

Esperientzien soka luzea

Euskalgintza Kontseiluak abian jarritako dinamika ez da berria. Beste hainbat herritan ere abian jarri dituzte antzeko erronkak, eta arrakasta izan da nagusi. Donostiako Egia auzoan egin zen mota honetako lehenbiziko egitasmoa, 2015ean. Euskaraz bizitzeko astebeteko konpromisoa gailendu zen eragile eta norbanakoen artean. Euskaraz bai ala bai hitz egitea zen apustua, baita ulertzen ez zutenekin ere. Hainbat tailer eta dinamika garatu zituzten. Zazpi aste iraun zuen esperientziak, eta ondorioak komunean jarri zituzten gero.

Hernani da beste aintzindarietako bat; bi hilabeteko erronka diseinatu zuten bertan, Egia-koaren antzera. Harrera ona



Milaka lagunek hartu zuten parte iaz Amurrioren eginiko “konpromisoen erro-tan”. Konpromiso horiek egikaritzea da aurtengo helburua. **Bego Guillen**



izan zuen ekimenak, 1.800 lagun inguruk parte hartu baitzuen. Beste hainbat herritar zabaldu zen gero grina. Zuiak “Baietz 42!” kanpaina egin zuten udan, hamaika herritan 42 orduz euskaraz bizitzea helburu. Agurainen, aldiz, 75 ordu aritu ziren euskaraz. Astigarragan eta Arrigorriagan ere egin zituzten

horrelako kanpainak iaz, abenduaren 3aren atarian.

Lasarte-Orian, baina, 40 egunez luzatu zuten ekimena, 3.000 belarriprest eta 300 ahobizi aktibatuta. Esanguratsua da bertako esperientzia, horretan oinarritu baitira Euskalgintza Kontseiluko kideak. Alavak azpimarratu duenez,

bertako pertsonaiak, kanta edota koreografia berdina aukeratu dute eskualderako: “Ez gara ezer asmatzen ari”, azpimarratu du Alavak, “beste herrietako ekimenak izan ditugu iturri, eta gure eskualdera moldatu ditugu”. Aiaraldeko indarguneak eta baliabideak kontuan izanda egituratu dute kanpaina.

Euskal Herrira salto

Beste hainbat tokitan ere ekin diote Ahobizi eta Belarriprestak aktibatzeari. Deustun, adibidez, 11 egunez ausartuko dira, azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

Datorren urtean, baina, Aiaraldetik Euskal Herrira egingo du salto proiektuak. Izan ere, ekimen nazionala antolatuko



da, hamaika egunez. Aiaraldea bizi eta prest egongo da ordurako.

+info:
Ekimenaren
informazioa
eta baliabide
guztiak



1.
go
txanda

Azaroaren 3tik 10era arte

Arrankudiaga - Zollo
eta Arakaldo

2.
txanda

Azaroaren 10etik 17ra arte

Laudio, Okondo eta Orozko

3.
txanda

Azaroaren 17tik 24ra arte

Laudio, Amurrio
Aiara eta Artziniega

4.
txanda

Azaroaren 24tik
Abenduaren 1era arte

Laudio, Amurrio eta Urduña

Urduñan elkartuko gara
ahobizi eta **belarriprest** guztiak



Euskareren erabilera, ez atzera ez aurrera

Azken bost urteetan jaitsi egin da Euskal Herriko kale erabilera. Araban soilik egon da igoera, %4tik %4,6ra.



Berbalagunak batzen dira kale erabilera sustatzeko, besteak beste. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Jaitsi egin da euskararen erabilera. Hori ondorioztatu daiteke Hizkuntzen Erabileraren Kaleko Neurketaren zarpigarraren azterketako datuak ikusita. Soziolinguistika Klusterrak plazaratutako datuen arabera, duela bost urte baino gutxiago hitz egiten da gaur egun euskara Euskal Herriko kaleetan. Elkarrizketa gehienak (% 76,4) gazteleraz egiten dira; % 12,6 euskaraz, % 8,3 frantsesez eta % 2,7 beste hizkuntzetan.

Txostenak ez ditu Aiaraldeko udalerrien datuak eskaintzen. Bai, ordea, Euskadikoak: Bizkaiko karriketan ematen diren elkarrizketen % 8,8 da euskaraz, 2011n % 9,4koa zen bitartean. Gipuzkoan, berriz, erabilera % 32,6koa zen 2011n, eta % 31,1koa da orain. Araban, ordea, sei puntu igo da erabilera: duela bost urte % 4koa zen eta gaur egun % 4,6koa da.

Emaitzak ikusita, zaila da Aiaraldean igoera edo jaitsiera eman den antzematea. Ondorioztatu daiteke ez dela aldaketa handirik egon; kale-erabilera geldirik dagoela alegia, ez atzera ez aurrera.

Aiaraldean, ezagutzak gora
Ikerketari erreparatuta, biskotakoa da kale erabileraren da-

tuek kontraste handia egiten dutela euskararen ezagutza datuekin.

Aiaraldeko biztanleen % 57 da euskaraz hitz egiteko gai, baina %11,2k soilik erabiltzen du hizkuntza. Etxeko erabileran, oster, jaitsiera nabarmena eman da: 1991.urtean euskara zekitenen % 57,4k hitz egiten zuten etxean. Hogei urte ondoren, aldiz, % 19,5era murriztu da ehunekoa (2011).


Alde handia dago euskaraz dakien jende kopuruaren eta hitz egiten dutenen zenbatekoaren artean

Horregatik ikusi dute hizkuntzaren normalizazioaren aldeko eragileek beharra eskualdean ezagutzatik erabilerara salto egiteko. Eta, horretara bideratua dago Euskalgin-tza Kontseiluak abian jarritako ekimena: euskaraz hitz egiten dakitenek erabiltzeko jauzia egin dezaten, hizkuntza ulertzen duten pertsonen laguntzarekin.



agenda

2017/10/18
2017/10/01



Aiarako Euskararen asteburuan

Ahobizi eta Belarriprest gonbidatu

Urriaren 20an, 21ean eta 22an ospatuko dute Aiarako zenbait herritan Euskararen Asteburua. Aiararrak ez ezik, bi pertsonaia izango dira aurten protagonis- tak: Ahobizi eta Belarriprest.

Urriaren 20an, ostiralean, biek parte hartuko dute Otueta Gizar- te Etxean egingo den solasaldian 19:00etan. Euskararen erabilera- ko aktibazio kanpaina aurkeztuko dute. 19:30ean, aldiz, Luiaondoko frontoiak jasoko du DJ Xaiborren dantzaldia.

Hurrengo egunean Arespaldi- tzan abiatuko dute “Aiara Denon Artean” ekimena, 18:00etan. Fe- rialean elkartuko dira herrita- rrak eta udaletxeko plazara joan- go dute kalejiran. Bertan, Aiarako

mapasatuko dute Belarriprest eta Ahobizirekin. Txokolate dastatzea egongo da gero.

Urriaren 22an “Igande Arratsal- deak Familian” ekimena egingo dute Izorian, Zentro Sozialalean. 17:00etan Korri eta Salto pailazoek “Familia Giroan” ikuskizuna eskai- niko dute eta gero eskulanak eta as- karia egongo dira.

Berdintasunaren aldeko topaketa, Laudion

Berdintasunaren Eskualdeko Topaketa egingo du Aiarako Kua- drillak urriaren 28an Laudioal- de Lanbide Heziketa Ikastetxean.

10:00etan hasiko da jardun- aldia, emakumeen autono- miari buruzko hitzaldi batekin. 14:30ean bazkaria egongo da eta zenbakiaren bidez.



15 dendak hartuko dute parte “Laudio Moda” desfilean



Datorren larunbatean -urriak 21- egingo da Laudio Moda des- filearen edizio berria. 19:30ean izango da zita, Laudioako Aldai Pla- zan. Herriko 15 saltokik hartuko dute parte ekimenean: 1971, Auro- ri Lencería y Niños, Can-Can, Cha- rol, Irrintzi Euskal Jantzi Denda, Kaskibel, Kendas, Kukuma, Mo- dimel, Monai, Olympus, Trece 13, Trenpea, Tximeleta Boutique eta Unan Jantzi Denda Levi's.

Gonbidapena beharko da desfi- lea ikusteko, leku kopuru muga- tua dagoelako. Aipatutako 15 den- detan edo APILlen facebookoan lortu daitezke sarrerak.

29 musika taldek joko dute Bilbao Death Festen

Laudion egingo da Bilbao Death Festen hirugarren edi- zioa, Orbeo Etxean. 29 musika taldek joko dute guztira urria- ren 27an eta 28an. Musika esti- loari dagokionez, doinu gogo- rrak izango dira nagusi. Sarre- rak 14 eurotan daude salgai Or- beko Etxean bertan.



pitchline-zine.com

MUSIKA

10.20
Ostirala
22:00 AMURRIO
XABI SAN SEBASTIAN + LONGIERS
Sarrera: 7 euro
Burubio Kultur Elkarte

10.21
Larumbata
20:00 ARTZINIEGA
TXAPELSWINGERS
Jazz kontzertua
Ama Agustindarren komentua

10.21
Larumbata
22:00 LAUDIO
BRUTALITY SOUND ETA BASS HERRI SOUND
Gaztetxea

10.28
Larumbata
22:00 AMURRIO
PENADAS POR LA LEY + SINMAS + GORROTOZ
Sarrera: 7 euro
Burubio Kultur Elkarte

10.29
Igandea
19:30 LAUDIO
SAN ROKE MUSIKA BANDA
Ikasturteko lehen kontzertua
San Pedro eliza

ANTZERKIA

10.21
Larumbata
20:00 AMURRIO
ANTZERKI AMATEURRA
“Sueño de una noche de verano”
Sarrera: 4 euro
Amurrio Antzokia

10.27
Ostirala
19:00 LAUDIO
MISTER SEÑORA
Laudioalde Lanbide Heziketa Ikastetxea

10.28
Larumbata
20:00 AMURRIO
ANTZERKI AMATEURRA
“La ciudad sitiada”
Sarrera: 4 euro
Amurrio Antzokia

10.29
Igandea
20:00 AMURRIO
“El sofá de Sophie”
Sarrera: 4 euro
Amurrio Antzokia

10.20
Ostirala
9:30 LAUDIO
GENEROA ETA BURU GAIXOTASUNA
Erabilera anitzeko aretoa

10.23
Astelehena
10:00 LAUDIO
WORDPRESS IKASTAROA
Tokiko Garapen Agentzia

10.26
Osteguna
17:30 LAUDIO
LAIA ESKOLA
Ahaluntze gimnasioa
Kultura Etxea

10.29
Igandea
10:00 LAUDIO
EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA TAILERRA
Kultura Etxea (Aurretik eman behar da izena udaletxean)

UMEENTZAKO EKINTZAK

10.21
Larumbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Kultura Etxeko ludoteka

BESTEAK

10.18
Asteazkena
16:45 LAUDIO
ZINEFORUMA
“La vida empieza hoy”
Kultura Etxea

10.18
Asteazkena
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA
Gardea
Gardeako Gizarte Etxea

10.18
Asteazkena
19:00 URDUÑA
94. AGROEKOLOGIA FOROA
“Emakume baserritarra eta elikadura burujabetza”
Alondegia

10.19
Osteguna
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA
Landa eremua
Erabilera anitzeko aretoa

10.20
Ostirala



Kartelera

Oztibar eskualdea bisitatuko dute kultur trukea sustatzeko

Irteera antolatut dute Orozkoko Udalak eta Supelaur kultur elkarteak datoren urriaren 21erako. Nafarroa Beherrako Oztibar eskualdea bisitatuko dute, kultur artekotasuna sustatzeko. Ondoren bailara horretako herritarrak bertaratu dira Orozkora. Iaz egin zuten ekimena lehenbiziko aldiz.



LAUDIOALDE ARETOA
El pasado
URRIAK 21, LARUBATA
Sarrera: 2 euro
17:30 / 20:00



AMURRIO ANTZOKIA
Cars 3
URRIAK 22, IGANDEA
Sarrera: 3,6 euro
17:30



AMURRIO ANTZOKIA
It
URRIAK 22 eta 23, IGANDEA / ASTELEHENA
Sarrera: 4,8 / 3,6 euro
19:30 / 20:00



LAUDIOALDE ARETOA
Verano 1993
URRIAK 28, LARUNBATA
Sarrera: 2 euro
17:30 / 20:00



AMURRIO ANTZOKIA
Handia
URRIAK 29 eta 30, IGANDEA / ASTELEHENA
Sarrera: 4,8 / 3,6 euro
19:30 / 20:00



LAUDIOALDE ARETOA
Go!azen
URRIAK 29, IGANDEA
Sarrera: Doan
17:30



AMURRIO ANTZOKIA
Capitán calzoncillos
AZAROAK 1, ASTEAZKENA
Sarrera: 3,6 euro
17:30



LAUDIOALDE ARETOA
Bar Bahar
AZAROAK 3, OSTIRALA
Sarrera: 2 euro
19:30

KIROLA

10.21 Larumbata
10:00 URDUÑA
“**URDUNAKO HARANA**”
Ibilbide geologikoa haran berezi batean”
Turismo bulegoa

10.22 Igandea
8:30 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Eskalada Eginon Institutua (irteera)

10.22 Igandea
10:30 LAUDIO
LAUDIOKO VII. PATIN EGUNA
Aldai plaza

10.28 Larumbata
10:00 URDUÑA
“**URDUNAKO IZENAK**”
Paisalaren ahotsa”
Las Campas aparkalekua

TAILERRAK

10.18 Asteazkena
OROZKO
MINAK HITZ EGITEN DIGUNEAN
(Izena emateko azken eguna)
Induma informazio bulegoa

10.18 Asteazkena
17:00 LAUDIO
Begietako osasuna
Kultura Etxea

10.19 Osteguna
16:30-20:30 AMURRIO
Zerbitzuen enpresa txikientzako eta ostalarientzako ikastaroa
Refor enpresaldea

10.19 Osteguna
17:00 MURGA
XABOI TAILERRA
Gizarte Etxea

10.19 Osteguna
17:30 LAUDIO
LAIA ESKOLA
Ahalduzte gimnasioa
Kultura Etxea

19:00 LAUDIO
ACEROS 25 URTE
Dokumentalaren estreinaldia
Kultura Etxea (Arraño gela)

10.21 Larumbata
8:00 OROZKO
II. KULTURARTEKO TRUKEA
Egun osoko irteera

10.21 Larumbata
18:00 LAUDIO
ACEROS 25 URTE
Mobilizazioa
Lamuza Plaza

10.21 Larumbata
19:30 ARTZINIEGA
LICOR KARPY TALDEAREN HISTORIA
Etnografia Museoa

10.21 Larumbata
19:30 LAUDIO
LAUDIO MODA Desfilea
Aldai Plaza

10.23 Astelehena
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA Ugarte
Ugarteko eliza

10.24 Asteartea
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA Latorro
Latorro Ikastetxea

10.25 Asteazkena
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA Larrazabal
Toki On jatetxea

10.26 Osteguna
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA Herrigunea
Kultura Etxea

10.28 Larumbata
10:00 LAUDIO
BERDINTASUNAREN ESKUALDEKO TOPAKETAK
Audioalde Lanbide Heziketa Ikastetxea

INFO +
aiaraidea.eus

Kultura

Lau audioar eta bilbotar bat batu dira antzezlan labur eta berezi bat egiteko: Igor Arzuaga, Haizea Paris, Jabi De La Ydalga, Pablo Ibarluzea eta Mikel Ayllon. “Takoidun zapata

gorria” da obraren izenburua. Azken entseguak egiten dabilta egunotan, urriaren 28an estreinatuko baitute Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian.

Nazioarteko Antzerki jaialdian egongo dira, takoidun zapata gorria soinean



Ezkerretik eskumara, Igor Arzuaga, Haizea Paris, Jabi De La Ydalga eta Mikel Ayllon. **Piszi... faktoria taldea**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Arratsaldeko seiak dira. Aretan gaude, La Putxera ateneoko atarian. Horrela deitzen da Igor Arzuagak bere abestien sorkuntzarako baliatzen duen espazioa, musikari aretarraren kuartel nagusia, alegia.

Gaur, baina, ez gara Arzuagarekin soilik geratu. Beste bi pertsona daude berarekin: Mikel Ayllon eta Haizea Paris. Idazlea lehena, dantzaria bigarrena; biak ala biak audioarrak.

Handik minutu gutxira iritsi da Pablo Ibarluzea. Aktorea eta antzerki zuzendaria, Audiokoa baita ere, *Cirque Du Soleil* konpainiarekin aritu izan da Europan barrena emanaldiak eskaintzen, besteak beste.

Bosgarren pertsona bat falta da: Jabi De La Ydalga aktore bilbotarra. Baina ez da etorriko, gaixorik dagoelako. Hori

dela eta, bera gabe egin behar dute gaurko entsegua. Lortzeko dago bost lagunen artean atontzen ari diren proiektua: “Takoidun zapata gorria” antzezlan laburra. Zehaztua dute obraren jaiotza-data: urriak 28, larunbata. Egun horretan taularatuko dute lehenbizikoz, non eta Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian. Bi emanaldi eskainiko dituzte Zapateneko lokalean, 19:00etan lehena eta 20:00etan bigarrena. Hurrengo hiru egunetan -29, 30, 31- ere eskainiko dituzte emanaldiak, toki eta ordu berdinetan.

“Giro iluneko antzezlan”

Nazioarteko jaialdiaren OffLokal sailean eskainiko dituzte emanaldiak. “Jaialdiak laguntza ematen du urtero Arabako antzerki taldeentzat”, azaldu du Mikel Ayllonek, “guk gidoi bat idatzi eta aurkeztu genuen. Epaimahaiak erabaki zuengidoi hori antzezlan bihurtu eta jaial-

dian aurkeztu behar zela. Horretan gabilta”.

Udan ekin zioten entseguak egiteari, eta azken ukituak ematen dabilta orain. Dantza, musika, antzerkia eta literatura uztartzen ditu obrak, Haizea Parisen, Igor Arzuagaren, Jabi De La Ydalgaren eta Mikel Ayllonen eskutik, hurrenez hurren. Pablo Ibarluzea, aldiz, zuzendari lanetan dabil. “Estilo bereziko lana da”, azaldu du aktoreak, “argiztapenak, jantziek... oso moldaketa berezi eta interesgarria izango dute”. Ayllonek, bere aldetik, nabarmendu du “giro iluneko” lana dela, “tragedia ukituak” dituen: “Portuko taberna batean girotua dago. Detektibe bat, pianista bat eta dantzari bat dira protagonistak. Bakoi-tzaren gorabeheren berri jasoko du ikusleak, kontatzen dituzten gauzen bidez”.

Hasi da entsegua. Arzuagaren pianoren erritmopean ibiltzeki ekin dio Parisek, Ayllon



Urriaren 28an estreinatuko dute lana, Gasteizko Zapateneko lokalean

testua irakurtzen ari den bitartean: “Gelditu eta zapatak kentzeko makurtu da. Eskumakoa kendu eta poltsan sartu du. Ezkerrekoa kendu eta eskuartearen begira geratu zaio tarte batez. Ezin du gehiago...”. Saioa gelditzeke keinua egin du Ibarluzeak. “Hemen utziko dugu”, esan du, “antzezlanaren zati garrantzitsu bat azalduko baita jarraian”. Ez dute istorio guztia erakutsi nahi, ez behintzat estreinaldiaren eguna baino lehen.

Gasteiztik harago

Urriaren 28ra arte itxaron behar dugu, beraz. Hala ere, egongo da, seguru asko, obra Gasteiztik harago ikusteko aukera ere. “Hogei minutuko obra da, baina lan handia egin dugu”, azaldu du Ayllonek, “gure asmoa ere bada beste toki batzuetan taularatzea. Eskualdean aurkeztu ahal izatea espero dugu baita ere, gure publikoarean aurrean”.

Positiboki baloratu dute aurtengo Begibistan Zinema Astea

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Amaitu da Begibistan Zinema Astearen VII. edizioa. Iragan urriaren 7an egin zen jaialdiaren amaiera gala, Amurrio Antzokian. Josean Bengoetxea izan zen ekitaldiko protagonista nagusia, berak jaso baitzuen Ohorezko Txapela. “Oso hunkigarria izan da, ez nuen espero hainbesterako izango zenik”, aitortu zuen aktore donostiarrak galaren amaieran, “lasai nengoen, ezagutzen nuen jendeaz inguratuta nengoelako. Oso polita izan da”.

Miren Gaztañaga aktorearen eskutik jaso zuen Bengoetxeak txapela, eta bertsoan zuzendu zen gero publikoarengana. Sari bikoitza jaso zuen aktoreak galan, bera azaltzen den *Renovable* filmak lortu baitzuen film labur onenaren saria.

Begibistan jaialdiari buruz ere



Saritu guztiak igo ziren oholtzara ekitaldiaren amaieran. Aiaraldea.eus

mintzatu zen Bengoetxea. “Sekula egon gabea nintzen festibal honetan, baina betirako eramango dut bihotzean. Maitasun handiarekin eginiko ekimena da eta etorkizun luzea opa diot”.

Balorazio positiboa

Positiboki baloratu dute Begibistanen antolatzaileek aurtengo

edizioa. “Jende dezente etorri da”, adierazi du Kepa Sojok. Ikas-tetxeekin izandako esperientzia azpimarratu du jaialdiaren zuzendariak: “herriko hezkuntza zentroetako ikasleak etorri dira eta hainbat film ikusi dugu eurekin. Esperientzia positiboa izan da, hurrengo edizioetan errepikatzeke modukoa”.

Hiru obra ikusgai Antzerki Amateurraren VI. erakustaldian

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urria eta azaroa bitartean egingo da Antzerki Amateurraren Erakustaldiaren VII. edizioa, Aimara taldearen eskutik. Hiru obra ikusteko aukera egongo da Amurrio Antzokian.

Urriaren 21ean izango da lehen zita. *Sueño de una noche*

de verano lana taularatuko du Lizarrako Kilarrak taldeak. Villabako Kilimak taldearen txanda etorriko da gero, urriaren 28an, *La ciudad sitiada* lanarekin. Azaroaren 4an izango da hirugarren emanaldia, oraindik zehazteke dagoen talde baten eskutik.

20:00etan izango dira hirurik saioak eta 4 euro balioko du sarrerak.

Altzarrateren argazki lehiaketa abian, bigarrenenez

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Altzarrate kirol eta kultur taldeak abiatu du bere argazki lehiaketaren bigarren edizioa. Urriaren 31ra arte egongo da irudiak aurkezteko epea.

Antolatzaileek adierazi dute gaia librea izango dela, baina Audiorekin lotuta egon behar du da nahitaez. Parte hartzaile

bakoitzak hiru irudi aurkeztu ahaliko ditu gehienez ere. Ondorengo postara bidali behar dira JPG formatuan eta egilearen izen abizenak eta telefonoa idatzita: penaltzarratefoto17@hotmail.com. Hiru sari egongo dira: 225 eurokoa izango da lehena eta 125 eurokoa bigarrena. Hirugarren postua lortzen dutenek, al-diz, bi pertsonentzako afaria jasoko dute.

Garden Erena, Aiaraldeko nekazari eta lorezaintzat pentsatutako gunea

30 urte baino gehiago daramatzate Garden Erenako kideek nekazaritza eta lorezaintzaren sektorean lan egiten. Ate irekien jardunaldia egingo du familia-enpresak urriaren 28an, Murgan duen pabilioian.

“Bezeroekiko arreta pertsonala”. Hori da Garden Erenak bere ibilbidean mantendu duen funtsezko elementua. 1985. urtetik daramate familia-enpresa horretako kideek nekazaritza eta lorezaintza sektorean buru-belarri. Duela hamaika urte ireki zuten Murgan duten pabilioia. 12.000 metro karratuko zabalerak du espazioak, eta denetarik produktuak topatu daitezke bertan: “ortu, lorategi edo haztegi bat zerotik eraikitzeke behar den guztia”.

Urteetan zehar eskuratutako eskarmentuari esker, bezero kopuru handia du Garden Erenak. “Denetarikoa daude: nekazariak, udalak, ekoizle handiak...”, azaldu dute enpresako kideek.

Ate irekien jardunaldia

Urriaren 28a egun berezia izango da Garden Erenaren pabilioian, ate irekien jardunaldia egingo baitute, 12:00etatik 14:00etara. “Hainbat enpresako kideak bertaratuko dira euren produktuak erakustera, eta doako luntxa egingo dugu gero, bertaratutako guztientzat”.



GARDEN ERENA

Aiarako Industrialdea, MURGA www.gardenerena.com 635 706 734

PUBLIERREPORTAJEA

kultura



Abenduan igoko da Governors Burubioko oholtzara. Saioa Gauilunak

Governors, Joseba Irazoki, Cobra, Ze Esatek! eta beste 21 taldek joko dute Burubion

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Indartsu hasiko du ikasturtea Burubiok. Kontzertu eskaintza zabala eskainiko du kultur elkarteak Amurrioko Maskuribai industriagunean duen pabilioian.

Ia astebururo egongo dira emanaldiak, eta hainbat estilotako taldeak igoko dira oholtzara: Penadas por la ley, Joseba Irazoki, The Wizards, Revolta Permanent, Elbereth, Rafa Rueda, Igor Arzuaga, Etorkizun beltza, Fetitxe, Libe, Ze esatek!, Governors... Luzea da zerrenda, urtarrilera artekoa baita aurkeztu duten programazioa.

“Musika estilo ezberdinak jorratzen saiatu gara, talde akustikoetatik muturreko metal doinueta”, azaldu du Egoitz Palacios. “Ahalik eta publiko anitzena” erakartzea dute helburu.

Burubioko kideak gainertatu du saiatu direla “izen-handiko” taldeak ekartzen, Amurrioko kulturagunea Euskal Herrian erreferentzia izatea bilatu nahi baitute.

HURRENGO KONTZERTUAK

10.20 Ostirala
Xabi San Sebastian + Longiers

10.28 Larunbata
Penadas Por La Ley + Sinmas+ Gorrotoz Haziak

11.03 Ostirala
Hibakusha + Nukore + Disaster Now

11.05 Igandea
Joseba Irazoki

11.17 Ostirala
Cobra + The Wizards + Revolta Permanent

11.24 Ostirala
Lomoken Hoboken + The Riff Truckers

+ INFO: BURUBIOKE.COM

Ekonomikoki finkatzea xede

Hala ere, badago gauza bat elkartaren jarduna asko mugatzen duena: dirua. “Taldeak sarrreraren truke datoz, eta hori handicap handia da guretzat, ez da batere erraza egitarau erakargarri bat sortzea”, adierazi du Palacios, baina nabarmendu du musika taldeek “izugarri ondo” ulertzen dutela Amurriokoa “kulturaren eta musikaren aldeko mugimendu bat” dela, eta ziurtatu du kasu gehienetan laguntza handia eskaintzen dutela.

Gauzak hala, “ekonomikoki finkatzea” da elkarteak ikasturte berrirako duen helburu nagusia. “Udalarekin hitzarmena sinatu eta diru-laguntza bat jasotzen dugun arren, asko kostatzen zaigu hilabetea aurrera ateratzea”. Aretoa lanegunetan alokatzea sustatu nahi dute horretarako, mota askotako ekimenak egiteko bertan: bideo klipen grabaketak, kontzertu bereziak... “Amurrioren dagoen gabezia musikal eta kulturala betetzea dugu xede, horregatik sortu ginen eta hori da gure izatearen funtsa”.

HISTORIA

Ramon Azkueren fusilamenduaren 80. urteurrena

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ramon Azkue omendu dute asteburu honetan Arrankudiagan, igandean -urriak 15- 80 urte bete baitziren fusilatu zutenetik. EAJko kide garrantzitsua izan zen Azkue, Guda Zibilean Eusko Gudarostea zuzentzea egokitu baitzitzaion.

Kuban jaio zen 1898. urtean, baina lotura handia izan zuen Arrankudiagarekin. “Bere ama, Ramona Gorostizaga, herrikoa zen”, azaldu dute Ramon Azkue elkarteko kideek.

Hori dela eta, Bilbo eta Arrankudiaga artean aritu zen militante jeltzalea. Herrian zegoenean, gaur egun Batzokia da-

goen tokian bizi zen. Hiriburura mugitzen zenean, aldiz, Carton Hotelaren aurrean zegoen etxe batean hartzen zuen ostatu, Elkano kalean.

Ikurriña 1931. urtean

Zeresan handiko ekintza bat egin zuen Azkuek Arrankudiagan 1931. urtean: Ikurriña jarri zuen udaletxean lehenbiziko aldiz, Jesus Solaunekin batera. Sei urtegehiagobaino ez zen bizi izan: 1936ko urriaren 15ean fusilatu zuten frankistek Santoñako espetxean, beste 13 lagunekin batera.

Urriaren 13 eta 14an hainbat ekintza egin ziren Arrankudiagan Azkueren figura goraipatzeko, Eusko Alderdi Jeltzaleak antolatuta.

VIAJES ECUADOR

ELKARREKIN EGINDAKO BIDAIAK ONENA

EZTEI-BIDAIAK
2017/2018



Adituak gara
MAITEMINTZEN
DUTEN BIDAIAK
antolatzen



MAGIAZ BETETAKO
GABONETAKO OPARIA

2 gau arte doan
eta haurrentzat DOAN *

URRIAREN 3tik AZAROAREN 15era ERRESERBATUTA

* 7 urtetik beherako haurrentzat doan.
Galdetu baldintzen inguruan



Touring Clubek eskaintako produktua

BIDAIAK
ONTZIRA!
LASTER

Deskontua

%10

eraino



Adituak gara
ITSAS BIDALDIETAN

Alberto Acero plaza 13, Laudio
94 672 54 54
llodio@viajesecuador.net

KALE-ANTZERKIA

“Argentinan antzezten bizitakoak”



Nerea Iglesias Lili



Hainbat emanaldi eskaini ditu Nerea Iglesias aktore audioarrak Argentinan udan. N.I.L.

Aurten Argentinan izan gara berriz ere Santa Feko eta Entre Ríoseko XV. Umeentzako Nazioarteko Antzerki Jaialdian, emankizun berri batekin, “Sokatik tiraka” edo “Sokatira” izenekoak.

Astebete irauten duen festival horretan, antzezteaz gain, aukera izan dugu beste lurraldeetako antzerkilariak (Kolonbiako kideak, Perukoak...), obrak eta pertsonak ezagutzeko. Beste behin Argentinako lurraldeetatik ibiltzeko parada izatea plazer handia izan da guretzat. Aurten Xabier Arbonies Jauregi eta Nerea Iglesias Lili joan gara Agerre taldearen eskutik.

Baina kronikarekin jarraitu aurretik, “Sokatik tiraka” antzerkiaren deskripzio txiki bat egingo dut. Panpoxa eta Panpoxon izeneko pertsonaiak dira antzerki honen protagonistak, eta soka da elementu nagusia istorioan. Antzerkiak klown ukitua du, eta emozioz eraikia dago. Harremanetan dauden tirabirak agerian ipintzen dituzte Panpoxa eta Panpoxonek, zerk lotu eta askatzen gaituen islatuz; irudien, mugimenduen, musikaren... bitartez.

Egunero oholtzaratu gara beste talde baten aurretik. Izan ere, gure antzerkiak “happening” izaera dauka. Antzeztu dugu La Juana areto independentean, San Carlos zine-teatroan, Monte Verako belardietan, Santo Tomeko udal antzokian eta UPCN sindikatuaren

aretoan. Leku bakoitzak du bere xarma eta historia.

Lehenengo egunean La Juana antzoki independentean aritzean, urduritasun guztiak kendu genituen gainetik. Umeak asko harritzen dira beti soka ikustean, eta antzezlan guztien ostean, umeak “chaaau chaaau” esatera eta gu besarkatzera gerturatu dira.

Beste ume batzuk, aldiz, galdezka etortzen dira: Nongoak zarete? Zenbat zarete familian? Hitz egin zure hizkuntzan! Galdara horien artean berba eta berba aritzen ginen ume zein familiekin.

Festivalaren azkenengo egunean, jaialdiko aktoreok antzezen bat prestatu genuen batera, bakoitzak egiten zuen lana kontuan hartuaz. Oso-oso dibertigarria izan zen. Duela hilabete luze bueltatu ginela, eta orain, Argentinatiko ikaskuntzak antzerkian aplikatzen gabiltza, eta jo ta ke entseatzeko, kutsu berri bat ematen eta, aldi berean, antzerkiaren xarma mantentzen.

Laudioko parke Egunean aurkeztu genuen Aiaraaldean, eta beste bi emanaldi ditugu lotuta. Alabaina, lanean dihardugu oso lan magiko eta berezi batekin: “Frontoia, begiz eta hotsez” proposamenarekin, hain zuzen. Halaber, unibertsitatean urtero prestatzen dugun antzerkiari dago-kionez, “Marat-Sade” proposamen eroa dugu esku artean.

Euskarazko irakurketa kluba dinamizatuko du Txani Rodriguezek



Hainbat liburu idatzi ditu Txani Rodriguezek. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Irakurketa Klub bat dinamizatuko du Txani Rodriguezek. Hiru saio egingo ditu idazle audioarrak, hirurak euskaraz. Urriaren 30ean gauzatuko da lehena, aza-

roaren 20an bigarrena eta abenduaren 18an azkena. 19:30ean izango dira hitzorduak, Laudioko Udal Liburutegian. Irakurketarekiko pasioa piztea izango da ekimenaren helburua. Urriaren 23an amaituko da izena emateko epea.

Ametsak egi bihurtzen ditugu

DENOK RESARA

BAI HORIXE, RESARA



ERRESERBAK

Enpresentzak, saltokientzat,
elkartentzat...
Gabonetako zozketa

2017

Laudio

ZUMALAKARREGI, 3
ANBULATORIO ONDOAN
T. 94 672 04 93
652 77 81 37
www.lacasaderesa.com

ZURE PARTNER TEKNOLOGIKOA IZATEKO PIEZA GUZTIAK DITUGU

SEGURTASUNA

CLOUD & IT

NEGOZIO IRITENBIDEAK

MARKETINGA

ALG↑TECH
tu partner tecnológico

LAUDIO | AMURRIO | BASAURI
ALGITECH.NET | 944 044 495

Kirola

IRRISTAKETA

Aldaiko taldea, Patin Egunaren bidez zaleak irristatzeko prest

Testua

Izar Mendiguren Cosgaya

Euskal Herriak zazpi alaba edo probintzia baditu, horiek eta gehiago batzen ditu irristaketak; Aiaraledan bederen. Horren adierazle dira Laudion zein Amurriion antolatzen diren Patin Egunak. Txetxu Urkijo Laudioiko Aldaiko Irriatjeta taldeko kidearen arabera, zale asko ditu inguruotan kirolak. Horien guztien topaketa izango da urriaren 22ko festa. Besteak beste, patin-ibilaldiak eta irristaketa erakustaldiak egongo dira.

Hainbat ibilbide

10:30ean hasiko dute Laudio-ko VII. Patin Eguna. Izen-emaitea izango da aurreneko ekinga. Bi zeharkaldi egingo dituzte Laudiotik barrena. 11:00etan abiatuko da zirkuitu txikia. Urkijok aurreratu duenez, bi kilometro izango ditu: "Aldai plaza izango da abiapuntua eta helmuga". Ordu erdi beranduago ekingo diote ibilaldi nagusiari, 10 kilometroko distantziari aurre egingez. Lehendabiziko txangoak herri-gunea izango du ardatz. Bigarrenak, aldiz, Gardea, Areta eta Ugarte auzoak batuko ditu.

Antolatzaileek adierazi duteenez, ez dute aparteko zailtasunik izango probek; eta, beraz, edonork hartu ahal du parte. "Helburua kirola ezagutaraztea da". Praktikatzeko ez ezik, ikus-teko aukera eskainiko dute. Izan ere, 12:15etan hainbat erakustaldi egongo dira. Batetik, "Inline bidezko irristaketa artistikoa" egongo da, patinaje artisti-



Iazko partaidetza kontuan hartuta 100-200 lagun espero dituzte antolatzaileek. Lorea Galnares

koa barne. Aurreneko ikuskizunean Ainhua Galdeano eta Aldaiko Irriatjeta KT ariko dira nor baino nor; eta bigarrenen Laudioiko Lautxirrinka Kirol Kluba.

"Irriatjeta agresiboa" ere hurbilduko dute plazara. Horretarako Bilboko Bladers Kluba gonbidatu dute. Ondoren, oparien zozketa egongo da. Antolatzaileek parte hartze handia espero dute, iaz ehun lagun baino gehiago elkartu baitziren. Amurrioko Patin Egunean ere -iazko abenduan- makina bat lagun bildu ziren.

Asteburuetan ikastaroak

Irriatjetan aritzeko gogo duenarentzat, besoak zabalik dituzte taldeek. Laudion, esaterako, larunbat goizero elkar-

Datorren igandean -urriak 22- izango da zita. Bi zirkuitu egingo dituzte herrian zehar, beste hainbat ekintzekin batera

tzen dira Aldai plazan. Horrez gain, eskola kirolen baitan, ikas-tetxeetako haurrekin ere egiten dute lan: "Azken urteetan eskolaz kanpoko ekintza gisa landu dugu. Eskola askotan dago aukera, baina normalean monitorea topatzea da zailena". Hemendik kanpo erakustaldiak antolatzeko joera handiagoa dago, Urkijoren ustetan; Bilbon kasu.

Aldaiko, Amurrioko Patin Kluba, Lautxirrinka.... "Lehen bazen Laudiers izeneko beste talde bat", dio Urkijok. Beraz, estalguneak akaso bai, baina topalekuak ez zaizkie falta irristaketa zaleei. Patinekin ibili ordez, jauziak ikustea nahiago dutenek, ordea, larunbata arte itxaron beharko dute irristaketaren festaz gozatzeko.

Laudio Atletismo Kluba garaile Basauriko Gaueko Milian



Gaueko Milia egin zuten iragan astean Basauriko Jaietan. Bertan egon ziren Laudio Atletismo Klubeko kideak, eta emaitza esanguratsuak lortu zituzten.

Endika Burutxaga eta Lur Larrakoetxea bigarren eta hirugarren postuetan klasifikatu zirengazte mailan. Uxue Gonzalezek eta Maider Martinek, aldiz, lehen postua eskuratu zuten gazte eta kadete mailetan.

Gorobel mendi ibilaldian izena emateko epea ireki dute



Mendiko Lagunak taldeak antolatzen duen ibilaldi ospetsua azaroaren 5ean izango da, 07:30etatik aurrera. Izena emateko epea irekita dago dagoneko.

Bi ibilbide egongo dira, ohi-turari jarraiki. Luzeak 36 kilometro izango ditu, eta motzak 23. Babio, Ungino, Eskutxi eta Somo mendiak zeharkatuko dituzte parte-hartzaileek.

XXXI. ediziora helduko dira aurten eta aurreko urteetan legez, argazki eta bideoen lehiaketa egingo dute. Horrez gain, txalapartariak topatuko dituzte mendizaleek bidean, eta amaieran oroigarriak banatuko dituzte.

Mendiko Lagunak taldeak azpimarratzen du Gorobel ibilaldia ez dela korrika eta presaka egitekoa, baizik eta paisaiatzeko.

Ondorioz, ez dute denbora kontrolik jarriko, eta antolatzaileek ez dute sustatuko inolako lehiakortasunik.

elkarlan

www.elkarlan.eu



asesores

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65

Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat

www.elkarseguro.com



TXIRRINDULARITZA

Luisa Ibarrola eta Mikel Beraza nagusitu ziren Urduñako Ziklokrosean

Luisa Ibarrola podiumean. Mari Jose Fernandez

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Luisa Ibarrolak nagusitasunez eskuratu zuen garaipena Urduña Hiriko Ziklokrosean. Junior kategorian lehiatu arren, marka onena egin zuen eta Elite kategoria-ko lehenengo sailkatuari ere 10 segundoko abantaila atera zion.

Mikel Beraza Aiara Txirrindu-

la Elkarteko gaztea kadete kategorian gailendu zen. Uxue Albizuak bigarren postua eskuratu zuen kadeteen pelotoian eta Josu Albizuak Sub23 kategorian protagonismo nabarmena izan zuen, lehena sailkatu baitzen Openean.

Hortaz gain, Iñaki Carrok lehen postua lortu zuen M30 kategorian.

MENDIZALETASUNA

Emakumeentzako mendi orientazio ikastaroa eskainiko duteTestua eta argazkia **Txabi Alvarado Bañares**

Emakumeei zuzendutako mendi orientazio ikastaroa eskainiko dute Orozkon. Bi saio egingo dituzte. Azaroaren 4an izango da lehena eta 5ean bigarrena, eta 9:00etan hasi eta 13:00ean amaituko dira biak ala biak, Zubiaur

Plazatik abiatuta. Orozkoko Udalak antolatu du ekimena, LAIA Eskola proiektuaren barruan. Hala ere, Aiaraldeko emakume guztiek eman dezakete izena, euren herrietako berdintasun zerbitzuekin harremanetan jarrita.

Hautzaindegi zerbitzua baliatu ahal izango da, aurretik abisatuta.

ORIENTAZIO PROBAK

Ibone Sanchez eta Aaron Garmendia neba-arrebak txapelkun Espainiako Orientazio TxapelketanTestua eta argazkia **Aitor Aspuru Saez**

Lehen postua eskuratu zuten Ibone Sanchez eta Aaron Garmendia anai-arrebek Espainiako Orientazio Txapelketan. Kategoría absolutuan -mistoan- lortu zuten txapela.

Navalcanen (Toledon) izan zen proba eta guztira 200 kirolari inguru elkartu ziren bertan. 8 orduko tarteak izan zuten Ibone Sanchezek eta Aaron Garmen-

diak 49 puntu kontrolak zeharkatzeko. Anai-arreben marka izan zen 07:49:55 eta 263 puntu batu zituzten.

Ibilbide luze eta oparoa egin dute bi kirolariek azken urteetan. Ibonek 4. postua eskuratu zuen irailean Espainiako Triatloi Elite Txapelketan. Aaron, bere aldetik, buru-belarri aritu izan da eskualdeko hainbat kirol proba esanguratsuren antolakuntzan, Aiaraldeko Raidean esaterako.





info gaztea

Arabako Gazteen Informazio eta Dokumentazio Lurralde Zentroa




Behar duzun informazio guztia pausu batera

www.araba.eus/gazteria
 945 181 700 / 670 281 700
informazioa@gazteria.araba.eus







ARABAKO FORU ALDUNDIA
 DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA





Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30/19:00 (EGUARDIAN ERE ZABALIK) Larunbatetan: 9:00/14:00

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK

ORRAZKERA BEREZI ETA DOTOREAK



· Estentsioak eta ileordeak
· Ezkonberri, amabitxi eta gonbidatuentzako osagarri eta apaingarriak
(loreak, brotzeak, kristalezko urkilak, lumak eta ilerako bitxiak)

HITZORDUA HARTZEKO: 945 89 08 41

Behin-betiko depilazioa · Sauna · Solariuma

  Ushuaia Peruquería & Estética/Perfumería

kirola

MENDIZALETASUNA

Mendiko Lagunak taldea, 2020ari so



Amurrioko Jaietan San Rokeko zelaian egiten den txapelketa gastronomikoa ere antolatzen du taldeak. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Amurrioko Mendiko Lagunak taldeak klubaren helburuen birdefinitzeko prozesua zabalduko du hurrengo hilabeteetan. Azken urtetako eztabaida ezberdinen fruitua da "2017-2020 Plan Estrategikoa" izendatu duten goeta prozesua.

Klubaren esanetan, datozen urteetan eskualdean are sakonago gertatuko diren aldaketa soziologiko, kultural eta industrial berriei egokitzeko beharraz jakitun abiatu dute prozesua, taldearen egungo egoera aldatzeko anbizio eta grinaz.

Asmoa, etorkizuneko ekintzak gauzatzeko ezinbestekotzat izango dituzten oinarriak finkatzea

dute. 2020. urtea jarri dute mugari eztabaidetatik ateratako bide-orriak marraztuko dituen ondorioen guztizko egokitzapenerako.

Berebizikotzat jotzen dituzten elkartasun, elkarlan eta gogoea kolektiboan oinarrituko dira 2017-2020 Plan Estrategikoa aurrera ateratzeko. Gauzak horrela, taldeko bazkide guztiei ez ezik elkartearen baloreekin bat datorren eskualdeko herritar orori ere luzatu diote bertan parte hartzeko gonbitea.

Apustu finkoa da proposatzen dutena. Mendiko Lagunakek, elkartearen egungo egoera eta etorkizuneko erronkak aztertuko ditu sakonki. Aukera eta posizio lehiakor berriak arakatu zein epe motz, ertain eta luzerako jar-

dunbideak berriz definitu. Elkar-tearen barneko analisi bat ere burutu nahi du, bazkide-profilean, antolaketa eta eskaintzen dituzten zerbitzuetan arreta jarritz.

Prozesuan urratsak ematen hasteko behin behineko egutegia aurkeztu dute, beti ere 2020. urtea ortzi-mugan. Urrian zehar goeta-prozesua zabaldu eta denetarikoa ideiak eta ekarpenak bilatzeko asmoa daukate.

Behin ekarpenak bilduta azaroan aurkeztu eta abendutik aurrera landuko dute 2017-2020 plan estrategikoaren testu proposamena.

Eztabaidatu ostean testu definitiboa osatu eta 2018ko Asanblada Orokorrean aurkeztuko luke behin betiko 2017-2020 Plan Estrategikoa.

PITCH & PUTT

Udazkeneko txapelketa abiatu dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako Pitch & Putt zelaian udazkeneko txapelketa abiatu dute. Inbarri elkartek antolatuta, makina bat lagun elkartu ziren urriaren 12an. Sailkapenari dagokionez, Iban Otegi izan zen nagusia Scratch kategorian; eta Alfredo Gomezentzat izan zen Handicapa. Ondoren Lleidera abiatu ziren partaideetako batzuk lehiatzen jarraitzera.



Eguraldia lagun izan zuten txapelketan. **Inbarri elkartea**

BORROKA ARTEAK

Legez kanpoko kolpea jasota, bertan behera utzi zuten Aratz Garmendiaren borroka

Testua
Aitor Aspuru Saez

Gijonera joan zen Aratz Garmendia asteburuan AFL 13 borrokaldian parte hartzeko, baina ez zuen zortea bere alde izan.

Izan ere, lehen roundaren hasieran, Alejandro Jurado bere aurkariak atzamarra sartu zion begian eta zauria egin zion betazalean. Horren ondorioz, Garmendiaren ikusmena erdira murriztu zen, eskuineko begiaz baitzuen ikusten. Medikuek eta epaileak erabaki zuten borroka bertan behera uztea. Kolpea legez kan-

pokoa eta nahigabekoa izan zenez, eta puntu nahikorik ez zegoenez, erabakia hartzeko, emaitzarik gabe -No contest, alegia- sailkatu zuten epaileek borroka. Garmendiak begirune osoa eskatu zuen Juradorentzat, errespetuz jokatu baitzuen, bere aburuz.

Hurrengo azaroaren 11n

Lesioak ez du sailhestuko, dena den, kirolari aiaraldearraren hurrengo hitzordua. Berez, milaka ikusleren aurrean lehiatuko da Miribillako Bilbao Arenan, Masters Series 11 borrokaldian.

FALKONERIA

Yeray Perez laugarren Espainiako Iparraldeko Falkoneria Jardunaldietan



Laugarren postua lortu zuen Yeray Perez gazteak. **Victor Perez**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Asteburuan izan ziren Espainiako Iparraldeko Falkoneria Jardunaldiak Leonen, La Virgen del Camino herrian, alegia. Yeray Perez 5 urteko gaztea adin guztietako aurkariekin lehiatu zen eta 4. postua lortu zuen.

Belatz batekin partehartu zuen lehiaketan eta 4. postua ez ezik, publikoaren txalo zaparrada ere jaso zuen.

Izan ere, jardunaldietako lehiakiderik gazteena izan da orain arte, eta dagoeneko XXIV. edizio

bete dituzte. Probak ospe handia dauka nazioartean eta Frantziatik edo Emirerri Arabieretatik joaten dira jarraitzaileak. Edonola ere, iaz, 4 urterekin, Galiziako Txapelketak bigarren postua bereganatu zuen Aiarako gazteak.

Yeray Perezen aita, Victor, Espainiako falkoneria txapeladuna da eta berak ere parte hartu zuen Leongo jardunaldietan. Harris arrano batekin egin zuen eta larunbatean lehena izan bazen ere, igandean zuten zortetik izan eta podiuma zapaldu gabe geratu zen.

Herriko plaza

Bidali zure zorion mezua agurrak@aiaraldea.eus helbidera urriak 28a baino lehen



Maider

Aiaraldea (eta bere hitz guru-tzatuak) maitatzera bultzatu gaituen lagunari. Gora kopak, bidaia eta dentistak!

Lagunak



Oihane

Zorionak Oihane eta muxu handi bat zure etxeko senideen partez!

Etxekoak



Irene

Urteek aurrera egiten badute ere, segi bidez gozaten! Maite zaitugu!

Lagunak



Eneritz

Zorionak Eneritz! Segi umore onarekin zure ingurua indartzen! Maite zaitugu!

Isasiko sorginak



Amama

Zorionak!!!! Gure sukaldari, kontu eta kanta kontalari onenari 60 muxu handi!

Manex eta Xare

Denborapasak



Irekita	Bihi, ala, garai	Argi	Berrizko suzioa
DEITURA	Jainkoaren 10 aginduak	Irristatu	
Beharzak			
Okerrak			
Liskarrik	IZENA	Lapurdiko gailurak	Kontso-nantes
Eritasun mota	Kapa	Fermuki, imok	Mohai jokoa
Bestari		Ontzi-mutit	
Geunden		Belar landare	
Ogi, hitz elkartzeetan	Egunaren zatia		Bizkaleraz, gihiegi
Aiaraldeko hitia	Edari bizi		
Kirol mota		Bokalik gabeko kalera	
501		Neodimioa	
Momentua			
Bokai biribila			
Molla, nasa	Nongo		

❖ Boccia txapeldun artziniegarra

ERRAZA

	1	8				2
4		7				8
6	9			2	1	5
3			2	7		9
7	6			3	4	2
	8		5	4		
8	3		4			
9	7	4	3		2	8
	5	2		9	8	6

		4	7			8
9	7	2	5		8	6
				2	5	7
			2	6	7	4
	9		3	4		6
					6	2
7		8		5	3	
	4	9		7		
2				8	3	

ZAILA

		2			8	
			8	1		7
	3	8	9			6
		3	4			2
	6				8	5
9				3		4
		7		3	9	6
5	9					
		6	7		4	9

				4	9	2
	5			6		
	2	7		9	5	3
				5		
	6			2		4
5	9			6		
			1			
3				7		1
6	2			3		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Eskelak



Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean nahi duzun eskela edo agur mezua.

Urteurrenak
Oroigarriak
Esker-onak
Eskelak

Informatu eskelak@aiaraldea.eus-en



Zozketa



ENEAN ILE APAINDEGIAN ILE MOZKETA UNISEXA



Laudioko Enean ile-apaindegian ile mozketa eta orrazketa bonoa eskuratu nahi? Parte hartu www.aiaraldea.eus web atarian.



Emaizak



Zazpiko
Aurki itazu bi irudi
hauen artean dauden
zazpi diferentziak.



zazpiKoa

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden zazpi diferentziak.



Kontra

Aiaraldetik mundura

Thomas Fabian

Zaloea Sanjurjo Garcia

JAIOTERRIA
LAUDIO (1989)

BIZILEKUA
OSLO (NORVEGIA)

BIDAIAREN XEDEA
LANA



NORVEGIA



DESKRIBAPENA

Herrialde menditsu eta hotza da Norvegia. Gobernuari dagokionez, monarkia konstituzionala da nagusi, Estatu Espainiarrean bezala. Alabaina, ez dago Europar Batasunaren barruan eta bere txanpon propioa du: koroa norvegiarra.

AZALERA

323.802 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

5,2 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Norvegiera eta laponiera.

BITXIKERIAK

Zirkulu polarrak eragin handia du egun eta gauen iraupenean. Garaiaren arabera asko aldatzen dira argi eta iluntasun ordu kopuruak.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea.
Laudio, Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarriketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

“Europako Koktel Txapelketa irabaztea da Atenasen nire asmoa”

Eskandinaviako koktel txapelketa irabazi berri duzu.

Eskandinaviako norgehiagoka lehengo pausua baino ez da izan. Berez, nazioarteko txapelketa da eta zazpi atal ditu.

Bi egunetan banatzen dira probak eta atal bakoitzean puntuak ematen dituzte. Hala ere, Free-Style proba eta abiadurarena dira garrantzitsuenak, 800 puntukoak baitira guztira. Barran lan egiten zaudela irudikatzen duzu bietan.

Urteak daramatzazu tabernetan lan egiten, baina nola egin duzu salto zerbitzari soila izate-tik mota horretako txapelketa-aritzera?

Inoiz ez nuen pentsatu honetan aritzea, benetan diot. Londresera joan eta han, ohiko pub ingeles batean lanean nengoela, konturatu nintzen oso pozik eta gustura nengoela barraren atzean. Horren ostean, etxera bueltatu eta ardura

gehiago hartu nituen amaren tabernan. Hainbat ikastarotara joan nintzen eta 2016. urtean Eskandinaviara joatea erabaki nuen, hila-beteko bartender ikastaroa egitera European Bartender Schoolen. Beraz, progresiboa izan da saltoa. Osloez da oso handia, Bilboren tamainakoa da. Gauzak hala, behin “giro” horretan sartzean, pertsona batek beste bat aurkeztzen dizu, eta asko ikasten da horrela.

Zer da horrelako txapelketetan baloratzen dena?

Dena. Amerikar bar edo amerikar bartender baten jarrera, osorik.

Estatu Batuetan ez da nahikoa koktelak prestatzearekin, “showmana” ere izan behar zara. Bertako bezeroak tabernara hurbiltzerakoan ordu asko egongo dira barran eserita. Han edan, jan eta parranda egingo dute; txupitoak edan ere bai.

Bartenderra da giroa pizten duena, haiekin hitz eginez, istorioak kontatuz, bata bestearekin harremanetan jarriaz...

Txapelketan, beraz, teoria azterketa dago (80 koktel inguru jakin behar dituzu buruz), baina abiadura ere aztertzen da, barran nola moldatzen zaren, koktelak prestatzerakoan hitz egiten jarraitzen duzun, hainbat eskara aldi berean kontrolatzeko ahalmena daukazu... dena.

Nola entrenatzen duzu horrelako lehiaketa batean aritzeko?

Egunero egoten nintzen koktel errezetak irakurtzen eta idazten. Goizetan tabernara joaten nintzen (itxita zegoelako) eta abiadura hartzeko praktikatzeko nuen, botila horiek urez beteta.

Abiadura frogan 5 koktel prestatu behar dituzu 4,30 minututan gehienez; puntuak galtzen dituzu bestela. Errezeta ezin-hobeto

egon behar da gainera, ezin duzu osagai bat bera ere ez ahaztu.

Zein da, zure ustez, koktel on bat egiteko sekretua?

Bezeroen buruan betirako irautea da sekretua, nire ustez.

Koktelak egin edo edatea, zer duzu nahiago?

Ez dut inoiz asko edan. Ez nuen alkoholik edaten 21 urte edo izan arte. Horregatik uste dut gustatzen zaidala horrenbeste koktelak prestatzea. Zaporeekin ari zara jolasean, ez bakarrik alkoholarekin. Sukaldatzearen antzekoa da.

Europako Txapelketara zoaz orain. Zeindazureasmoabertan? Irabaztea, noski! Atenaseko norgehiagoka finalaurrekoa baino ez da, Estatu Batuetan da azken txanpa. Harro nago hona heldu naizelako, baina orain bukaeraino iristea gustatuko litzaidake.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43 info@grafiksarea.com



Arantzar, z/g
LAUDIO (Araba)
946 721 200 // info@jez.es



BASALARRAINA
euskal TOPAGUNA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA